

MERKATUAREN

SEGMENTAZIOA

Gure proiektua ikusmen arazoak dituzten pertsonetara bideratuta dago. Makila daukan sistema bibratorio hori erantsi diogu erraztasun eta segurtasun gehiago gehitzeko.


Gure produktuaren merkatu segmentazioa merkatu-nitxoa da, hau da, bezero oso zehatzak eta bereiztuak dituen segmentua. Hemen, balorezko proposamenak, banaka kanalak eta bezeroarekiko harremanak hartzailearen neurrira diseinatuak egon behar dira. Hau da, erosle edo pertsona bakoitzak, trataera pertsonalizatu bat jasoko du, bakoitzaren beharren arabera.

Itsuentzako makilaren merkatu-segmentazioa hainbat faktoreren arabera izango da, hona hemen kontuan har daitezkeen segmentazio batzuk:


❖ Ikusmen-urritasun mota:

Jaiotzetik itsuak diren pertsonak eta gaixotasunen edo istripu baten ondorioz ikusmena galdu duten pertsonak. Eta ze mailara arte diren itsuak, hau da, ezer ez ikusten duten ala ikusmen oso mugatua duten.

ESPAINIAKO ITSUEN KASU DESBERDINAK



ESPAINIAKO ITSUEN ADINA (ONCE)




❖ Adina:

Ikusmen-urritasuna duten pertsona guztiei, hau da, sektore hauen barnean dauden pertsona guztiei.

❖ Gustoak eta praktikotasuna:

Pertsona ezberdinen gustoen arabera, haien makilak erabat pertsonalizatzeko aukera izango dute. Hau da, kolore bat edo beste nahiago badute, edo beste motatako lehentasunen bat baldin badute, haien gusto pertsonalekin lotuta. Ikusmen-urritasun motaren arabera, makilek kolore desberdina dute, kolore zuria itsuentzat da, eta berdea ikusmen murriztua dutenentzat.



❖ **Maila sozioekonomikoa:**

Baliabide ekonomiko handiagoak dituzten erabiltzaileentzako makila bibratzailea izateaz gain, google maps bat integratuta egongo da, botoi bat sakatu, nora joan aukeratu eta ahoz zure helmugara bideratzen zaituena, hau ezaugarri aurreratuak dituen gama altuko produktu bat izango da. Baina baliabide ekonomiko nahikoak ez dutenak, google maps sistema gabeko makila bibratorioa eskuratzeko ahalmena izango dute prezio baxuago batean.

